

IUS OSCULI, EMAZTEAK EDAN EZ DEZAN



Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazustabarrena

Erroma, K.a. VIII. mendea. Kondairaren arabera, Romulok, hiriaren fundatzaileetako batek berak, *Ius Osculi* (musu emateko eskubidea) izeneko legea jarri zuen indarrean, beste arau askorekin batera. Lege horren arabera, emakume ezkonduak, egunero, senarrari ahoan musu eman behar zioten. Ez zen hura senar-emazteen arteko harremana derrigorrez estutzeko neurri bat, emakumeei nolabaiteko alkoholemia kontrola egiteko bidea baizik: gizonak hatsean antzemango zion emazteari ardoa edan zuen ala ez.

Lehen erromatarrentzat (gizonez-koentzat) alkoholaren kontsumoa eta adulterioa guztiz lotuta zeuden (edaten zutenak emakumeak zirenean soilik). Horregatik emakumeei debekatuta zeukaten alkohola kontsumitzea. Derrigorrezko musuen bidez kontrolatzen zuten hori eta, senarraren alkoholimetria beti nahikoa ez zenez, *Ius Osculi* legea jasotzen zuen haren senitartekoek ere emazteari musu eman behar ziotela, hasierako emaitza positiboa ala negatiboa berresteko.

Emaitza positiboa zenean zigorra senarraren esku geratzen zen: jipioa, zapuztea... edo heriotza. Valerio Maximok dio Egnazio Mezenio izeneko erromatar batek emaztea kolpeka hil zuela ardoa edateagatik. Eta idazleak esaldi honekin



LOUVRE

justifikatzean zuen zigorra: “Ardo egarritz dagoen emakume orok bertuteari ateak ixten dizkio, eta bizioei ireki”. Eta Plinio Zaharrak azaldu zuenez, alkohola edandako emakumeak maiz gela batean giltzaperatu eta hantxe gosez hiltzen zituzten.

Denboraz, lege zurruna lasaitu zen pixkanaka eta erromatar emakumeei Bakoren plazerraz gozatzeko baime-na eman zieten. Baina edateagatik heriotzara ez kondenatzeak ez zuen esan

Erromako hiria fundatzearekin bat, Ius Osculi edo musu emateko eskubidea jarri zuten indarrean. Praktikan, alkoholemia kontrol sexista modukoa zen.

nahi ondo ikusia zegoenik. Bi mila urtetik gora igaro dira eta alkohola edaten duten emakumeei musu emateko edo nahi beste egiteko eskubidea dutela uste dute askok oraindik. ■



Sarkofago edo haragijale

Sarkofago hitzak erro grekoak ditu: *sarkós* haragia da antzinako grezieraz, *phagein*, aldiz, jatea, eta *-o* atzizkiak egilea edo akzioa burutzen duena esan nahi du. Beraz, sarkofago hitzak haragijale esan nahi du eta badu zentzua, kutxa horiek giza haragi hila “jaten” baitzuten. Eta ez soilik zentzu metaforikoan.

Berez, hasieran erabiltzen zuten esamoldea *lithos sarkophágos* zen, hau da, “haragia jaten duen harria”. Lehen sarkofagoak kareharrizkoak ziren eta barruan sartutako giza haragia literalki deskonposatzen zuten, azido-base prozesu kimikoaren bidez; giza haragia azidoa da eta kareharria, berriz, alkalinoa. ■